

Kultur agenda

Urriak 17 ostirala
Urriak 26 igandea



Europako zinemarik onena

Marcel Carne-ren "Drole de drame" filmaren proiektioarekin abian jarri zen asteazkenean

"Cinedays Ireki Begiak" Europako zinemari buruzko egitasmoa Donostian. Europako Batzordearen Media Programak Euskadiko Filmategiaren eta Zinebiren laguntzarekin antolatutako ekimena da. Egunotan beste lau film ikusteko aukera izango dugu Arrasate kaleko Kutxa aretoan, 19.30ean. Hauexek dira filmak, hurrenez hurren:

"Four Feathers" (1939) -urriak 17-, "Matrimonio all'italiana" (1964) -urriak 21-, "Urte ilunak" (1992) -urriak 22-, eta "La vida mancha" (2003) -urriak 24-. Enrique Urbizuren filma, gainera, euskaraz ikusi ahal izango da estreinakoz.



Happy Apple Gazteszenan



Happy Apple kulturako musika talde birlakatu da jazz underground-a atsegin dutenen artean. Groove, bop eta bestelako estilo berritzaileak irudimenez nahas-

ten dituen musika talde eklektikoa da. Minneapolisen sortu zen eta bost disko kaleratu ditu orain arte. Erik Fratzke, David King eta Michael Lewisek osatzen dute Happy Apple. Egiako Gazteszenan izango dira, asteartean, urriak 21, 20.30ean. Sarrerak 12 eurotan daude salgai.



Haur antzerkia euskaraz

Larunbatean, hilak 18, etxeko txikienei zuzendutako hiru

antzezlan erakargarri izango dira gurean. Altza kultur etxean, Kike, Blas eta Jonas pailazoekin irri egiteko aukera izango da. Txalo taldeak "Natatxa" antzezlan taularatuko du Antiguako Lugaritz kultur etxean. Txotxongilorik ere ez da faltako, noski. "Galtzagarri" antzezlan eskainiko baitu Txotxongilo taldeak Intxaurren Berri kultur etxean. Saio guztiak 18.00etan izango dira.



"Bésame el cactus", ikuskizun apurtzailea



Hilaren 18an, larunbata, Sol Picó ezagunak "Bésame el cactus" dantza ikuskizun apurtzailea eskainiko du Egia kultur etxean, 20.00etan. Ikuskizun berezia da oso, eta dantza,

antzerkia, literatura eta musika uztartzen ditu. Protagonista ikusleen artera jaitsi eta tomateak banatzen ditu, ezadostasuna agertu nahi dutenen nahia asetuz. Begiak estalita dituela, kaktus artean dantzazera ere ausartzen da. Ikuskizun apurtzaile bezain dibertigarria.